

## ***Cristóbal Balenciaga Museoak 40.000 bisitari izan ditu 2015ean Getarian eta beste 39.500 kanpoan, museoarekin batera antolatutako erakusketa ibiltarietan***

**Getaria, 2015eko abenduak 16.-** Cristóbal Balenciaga Museoak, aurtengo ekitaldian, 40.000 bisitari izan ditu museoaren Getariako egoitzan, iaz baino % 6 gehiago.

Erabiltzaile eta bisitari kopuru horri museoak Espainian eta Frantzian ekoiztutako edo koproduzitutako erakusketetara joan diren bisitariak gehitu behar zaizkio, ia Getariako egoitzan izandakoak bezain beste.

«Bi zifrak dira interesgarriak –adierazi du Miren Vives museoko zuzendariak–; lehenengoa, txikia izanagatik, joera aldaketa bat erakusten baitu; bigarrena, Cristóbal Balenciagaren irudiak gure inguru fisikotik kanpora ere zer-nolako interesa eta garrantzia duen ulertzen laguntzen baitigu . Erakusketa ibiltariak eta koprodukzioek Getarian egiten dugunaren oihartzuna zabaltzeko aukera ematen digute, eta guk sortutako edukiak hainbat lekutara eramanda haien kultur errentagarritasuna hobetzen dugu eta hedapenaren gure xedeari laguntzen diogu».

### **2015eko balantzea**

Ekitaldi honetan, museoan bertan ekoiztutako aldi baterako erakusketak egin dira, hala nola «Balenciaga. Luxuaren esperientzia» eta «Balenciaga eta arte eszenikoak». Baina egin dira, era berean, museoaz kanpoko bildumei buruzko erakusketak ere («About Fashion» esate baterako, 2016ko urtarrilaren 31ra arte irekita), erakusketa-proposamen egonkorra osatzeko. Jarduera horrek bisitari ugari ekarri ditu Getariako museora; gehienbat Gipuzkoatik (% 22), Frantziatik (% 19), Bizkaitik (% 12,5), Madrildik (% 9), Nafarroatik (% 7,3) eta Kataluniatik (% 6) etorri dira.

Antolatutako programazioaren barruan, erakusketez gain, nabarmentzekoak dira Donostia 2016rekin batera prestatzen diren «Elkarrizketak» programaren barruko ekintzak ere. Hor barruan, diziplina ugariako gaiak jorratu dituzte, eta horietako batzuek, gainera, bitartekaritza-formatu berritzaileak sortu dituzte, hala nola «bisitaldi dantzatuak». Era berean, ikusle espezializatuentzako edukiak ere izan dira; esate baterako, agertokietarako jantziak diseinatuzko eta egiteko ikastaroak.

Hezkuntzaren alorreko jarduna da, hain justu, museoaren apusturik irmoenetako bat, % 80 ugaritu baita talde horretako parte-hartzaile kopurua, iazko datuekin alderatuta (eskolaumeak, helduak, familiak eta publiko espezializatua dira programen hartzaile taldeak).

Museoan antolatutako ekitaldiak eta jarduerak (kontzertuak, ibiltokiak, dantza-ikuskizunak eta abar) oso baliagarriak izan dira bisitariak ohiko ordutegietatik kanpo erakartzeko eta haien profila dibertsifikatzeko. Horixe zen izaera turistikokulturaleko jardueren helburua –ondo betetako helburua gainera–; esaterako, udan antolaturiko «Balenciagaren itsasoa» Donostiatik itsasontziz eginiko ibilaldiarena, edo neguko «Balenciaga hurbilago», irteera Bilbotik duenarena. Miren Vivesen hitzetan: «Esperimentu pilotu txikiak jarri ditugu abian hainbat arlotan zerk funtzionatzen duen eta zerk ez probatzeko. Helburua programazioari eustea da, ahal den heinean hura eskatzen duten publikoetara egokituta».

Ondareari dagokionez, 2015eko ekitaldiaren ezaugarri nagusia eginiko ekarpen immaterialak izan dira, «Josten duten eskuak» ikerketaren harira. Ikerlanak Balenciaga Etxeari buruzko testigantzak eta dokumentuak biltzea du helburu. Horretaz gain, azpimarratzekoa da zenbat gordailu bilakatu diren dohaintza curten. Museoak bere proiektuarekiko eta haren etorkizunarekiko konfiantza-seinale modura hartu ditu aldaketa horiek.

## **2016rako aurreikuspenak**

Cristóbal Balenciaga Museoak programa anbiziotsua antolatu nahi du 2016rako. Urte horretan museoaren bosgarren urteurrena izango da eta gai nagusi bat hartu nahi du ekitaldi guztientzat, eta jostintzan, modaren bestelako lanbideetan eta sormen-iturrietan erabiltzen diren ehun-materialen eta beste material batzuen berrikuntzarekin eta jasagarritasunarekin izango du lotura.

Hala, La Cité internationale de la Mode et la Dentelle de Calais delakoarekin batera ekoitziriko erakusketak «Balenciaga eta parpaila» (martxoaren 18tik aurrera), Balenciagaren maisutza jorratuko du ehunak erabiltzerakoan –kasu honetan tradizionalak–, baita landu zituen erabilera eta formula berriak ere, aukera berritzaileak sortzeko.

Urteko bigarren erakusketa handiak (urriaren 6tik aurrera) Balenciagak bere goi-mailako jostintzako sorkarrietan eta Ortiz de Echagüek Espainia tradizionalari buruzko bere argazki-erreturuetan jorratutako ikuspegi erromantikoa eta berrikuspen estetikoa landuko ditu. Erakusketak Nafarroako Unibertsitateko Museoak dituen argazkilariaren funtsetako lanak eta Getariako museoko funtsekoak bilduko ditu.

Bi erakusketak daude Donostia 2016ren «Elkarrizketak» programaren barruan, eta konferentziekin, ikastaroekin eta jarduerekin osatuko dira, hala testuinguru

aberatsagoa sortzeko iritziei eta alderdiei dagokienez, ikuspegi historikotik, egungotik eta etorkizunari begira.

Horrekin lotuta, eta hezkuntza-programari dagokionez, berritasun nagusia Cristóbal Balenciaga Museoaren moda berrikuntzako I. eskola da. Jarduera Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen barruan egingo da eta hainbat jardunaldi eta tailer bilduko ditu material berriei eta material tradizionalen erabilera berriei buruz modaren balio-kate osoan zehar.

Ilido horretatik, urtean bitan gauzatuko den programa bat garatuko du Londresko Central Saint Martins eskolarekin lankidetzan; horren bitartez, bertako ikasleek museoko urteko gaia eta erakusketak hartuko dituzte abiapuntu beren ikerketak, gogoetak eta sorkuntzak garatzeko.

Bestalde, dantzak eta bestelako kultura-adierazpenek ere sendotu egingo dute museoko jardueren barruan duten lekua. Horretarako, adibidez, «Gutun zuria» egonaldi artistikoak antolatuko dira Donostia 2016rekin batera, eta «bisita dantzatuak» egiten jarraituko da. Museoko guneeetan inguruko beste kultur eragile batzuen programazioak biltzea ere aurreikusi dugu; esaterako, Atzegei eta «Zurekin sortzen dugu Donostia» proiektua, edo Getariako Udala bera, 2016ko kultur hiriburuaren helburuekin bat.

Cristóbal Balenciaga Museoak kanpoan duen presentziak Atlantikoaren bestaldea izango du agertoki nagusi. Bertan, Mexikoko bi museo nagusirekin egingo dira koprodukzioak: Mexiko Hiriko Arte Modernoko Museoa eta Guadalajarako MUSA Museoa. Horretaz gain, pieza bat lagako zaio New Yorkeko Metropolitan Museumeko Costume Institute delakoari, «Manus x machina: fashion in an age of technology» erakusketaren harira.

Museoak 1.468.000 euroko aurrekontua du, guztira, 2016rako. Ekarpen publikoa iazkoaren antzekoa izango da eta, gutxi gorabehera, aurrekontu osoaren % 76 finantzatzen lagunduko du horrek.

## **Cristóbal Balenciaga Museoa**

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011ko ekainaren 7an inauguratu zuten Getarian, eta moda-sortzaile bati oso-osorik eskainitako munduko lehen museo handia da. Haren helburua hauxe da: Cristóbal Balenciagak sorkuntza artistikoan oro har eta, bereziki, modaren eta goi-mailako jostuntzaren munduan egindako lana ezagutaraztea eta nabarmentzea.

Museoak Cristóbal Balenciagaren nazioarteko sorkari-bilkura garrantzitsuena gordetzen du, bai osatzen duten piezen kopuru eta kalitateagatik, bai haren hedapen kronologiko handiagatik.

Museoko espazioetan, bildumetako pieza hautatuak erakustiaz gain, modari lotutako aldi baterako erakusketak eta hezkuntza zein aisialdiko jarduerak ere proposatzen dira.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**  
**Cristóbal Balenciaga Museoko komunikazio-bulegoa**  
Zuriñe Abasolo Izarra  
E-posta: [Zurine.abasolo@fbalenciaga.com](mailto:Zurine.abasolo@fbalenciaga.com)  
Tel.: 943 00 47 77 - 647 410 775